

ESZEDENTZIAK HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

	AZALPENA	IRAUPENA	OHARRAK
NAHITAEZKOA	a) Kargu publikoren bat betetzeko izendatua edo hautatua izateagatik, langileak lanera joatea ezinezkoa badu. b) Langileak probintziako edota lurralde esparru handiagoko eginkizun sindikalak bete behar baditu. c) Langileak askatasuna galdu duenean, -prebentziozko atxilotzea eta behin-behineko espetxeratzea barne hartuta, zigortzeko epai irmorik jasotzen ez duen bitartean.	Behar beste denbora.	Antzinatasuna zenbatzeko eta lanpostua gordetzeko eskubidea emango du. Amaitu eta 30 egunetan lanera bueltatu behar da.
BORONDATEZKOA	Urtebeteko antzinatasuna bete duen langileak.	Gutxienez 4 hilabete eta gehienez 5 urte.	4 urte igaro behar dira berriz eskatu ahal izateko.
SEME ALABAK ZAINTEZKOA		Behar beste denbora haurrak 3 urte bete arte.	Eskaerak 15 egun arinago egin behar dira. Antzinatasuna zenbatzeko eta lanpostua gordetzeko eskubidea emango du.
2.MAILAKO SENIDEA ZAINTEZKO EDO, NAHIZ ETA ELKARREKIN EZ BIZI, HAREN TUTORE LEGALA BADA		2 urte gehienez.	Eskaerak 15 egun arinago egin behar dira. Antzinatasuna zenbatzeko eta lanpostua gordetzeko eskubidea emango du.
BATERAEZINTASUNA	Beste edozein administrazio publikotara joateko, betiere, izendapen batekin justifikatuz gero.	Eskatzeko arrazoia izan den zerbitzu harremanak dirauen bitartean.	Zerbitzu harremana amaitu eta 30 eguneko epean lanera itzultzea eskatu behar da. Ez dakar lanpostuaren erreserbarik.